Andoaingo Udala
Euskara Zerbitzua

Andoain, 2026-11-02

"Kazetaritza saria" eta "Komunikazio saria" ataletarako finalisten izenak asteazken honetan jakinaraziko dira.

Arritxu Iribar Egaña, 2026ko Rikardo Arregi Kazetaritza Sariaren ohorezko mugarria.



Azaroaren 20an izango da sari banaketa ekitaldia Andoainen, eta han Kazetaritza eta Komunikazio Saria nortzuk diren jakinarazteaz gain, Arritxu Iribar Egañak jasoko du ohorezko mugarria.

Duela gutxi arte, kirola gizonezkoen lurralde zaindua zen, baina hondar hamarkada hauetan emakumeak sartu dira irratietan eta telebistetan kirol ekitaldiak komentatzeko. Dagoeneko nehor ez da harritzen ahots femenino batek kirol emankizunak aurkezten dituenean. Karia horretara, Arritxu Iribar pionier bat izan da euskarazko eta euskal prentsaren alorrean.

Andoaingo Udala

Euskara Zerbitzua

Txirrindularitzari lotua da bere boza. Bere irri ezaguna. Bera ere txirrindularia izan da. Jendartean inplikatua ere bai, EH Bilduko Zumaiako udaleko zinegotzia izan zelako bi agintalditan. Joserra Garciarekin hasi zen goizeko ordu txikietako magazina aurkezten, handik bi urteren buruan kirol sailetara pasatu aitzin. Hiztegia eta gaia partekatzeko moduak landu ditu eta iragan uztailean erretiratu zen berrogei urteko lanaldiaren ondotik. Argian, Onintza Enbeitaren galdeei erantzunez hauxe argi utzi zuen: “gehien gustatzen zaidanean lan egin dut eta nire txirrindularitzaren ikuspegia konpartitu ahal izan dut!”

Elkarrizketa berean aitortzen zuen “24 ordutan gara kazetari” eta bere baitan ez duela sekula utziko berriak biltzen aritzeko zeregin hori. Arritxu Iribar bezalako esatariek irratia, Euskadi Irratia bereziki, erreferente gisa atxikitzera eraman dute jendea, teknologia berriek desagerraraziko zutela pentsatzen zen unean.

Horregatik guztiagatik, eta beste arrazoiengatik, Rikardo Arregi Kazetaritza Sariaren epaimahaiak izendatu du Arritxu Iribar Egaña aurtengo ohorezko mugarria eta azaroaren 20an eszenatoki gainera deituko du Xabier Laka eskultoreak mugarri honetarako sortutako oroitikurra jaso dezan.

Kazetaritza eta Komunikazio ataletarako 4na finalisten izenak azaroaren 4an, asteazken honetan, jakinaraziko dira.

Ohorezko mugarria nahiz finalistak izendatu dituen eta sariak erabakiko dituen epaimahaia ondorengoek osatzen dute: **Miren Berasategi Zeberio** (Deustuko Unibertsitateko irakasle eta ikerlaria), **Eneko Bidegain Aire** (idazlea eta Mondragon Unibertsitateko HUHEZI fakultateko irakaslea), **Itxaro Borda** (idazlea eta prentsa kolaboratzailea), **Angel Erro Jimenez** (idazlea, itzultzailea eta prentsa kolaboratzailea), **Pantxika Maitia** (kazetaria), **Libe Mimenza Castillo** (UPV/EHUko irakaslea eta ikerlaria), **Marta Lasa Goñi** (mahaiburua eta Andoaingo Udaleko Euskarako zinegotzi arduraduna), eta Arantza Aguado Perugorria (idazkaria eta Andoaingo Udaleko Euskara teknikaria).